

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MARKINAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 25ean Markinako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du Udalak zuzentasunez bete duela 2014ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia nahiz akatsak azaleratu diren 5 kontraturen esleipenean eta horietako baten luzapenean, kontratuak jasotako indarraldi epe gehiengoa gainditu baita; 5 kontratu horietatik 3 publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez lizitatu ziren, publikotasun printzipioa beteko zela bermatuko zuten prozedurak baliatu beharrean eta beste biak zuzenean esleitu ziren.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik Udalak ibilgetua amortizatzeko gastuak ez erregistratzea. Gainera, Epaitegiak ezin ondoriorik eman izan du Ibilgetuko saldoen zuzentasunari buruz, ez baitu Udalak hori osatzen duten elementuen xehapenik.

Udalaren egoera finantzarioari dagokionez, Udalaren sarrera eta gastu arrunten egiturak ez du ia aldaketarik izan aztertutako aldian; honela, bada, 2014an aurrezki garbiak sarrera arrunten gainean % 15 egin du. Aurrezki maila honek, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batean eta unean uneko geldikina baliatuta, egungo inbertsio mailak finantzatzeko bide eman du.

Amaitzeko, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak eta gastuaren araua bete dituela.